



**GAMIZ-FIKAKO UDALA  
BIZKAIA**

## 125/2020 Dekretua

Gamiz-Fikan, 2020ko zemendiaren 13an,

Epaila edo martiaren 14an 463/2020 Errege Dekretua onartu zan, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zala kontutan hartuz

Loraila edo maiatzaren 28an egindako Plenoan onartu zala, besteak beste, Gamiz-Fikako udalerrian jarduera ekonomikoa berraktibatzea onartu zan.

Laguntza honeek lehia bidezkoak ez dirala kontuan izanik eskabideak ez diralako elkarren artean alderatzen, eta hortaz, diruz lagunduko dira deialdian jartzen diran baldintzak betetzen dabezan eskaera guztiak.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, zemendiaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

887/2006 errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua. Gamiz-Fikako udalbatzak loraila edo maiatzaren 28an onartutako Covid-19ak sortutako kalte ekonomikoak leuntzeko enpresa eta autonomoentzat bideratutako dirulaguntzak arautzen dabezan oinarri berariazkoak,

### ERABAGI DOT

1. Lehenengo eranskinean jasotako persona edo enpresek eginiko eskaerei laguntzak **ONARTZEA**.
2. Bigarren eranskinean agertzen dan enpresari dokumentazio osagarria eskatzea eta ez baleu ekartzen, bere eskaera bertan behera ixtea.
3. Orain arte onartutako laguntzen **ORDAINKETARI EKITEA**, hain zuzen be 2.400,00 €, 48100 439 partidaren gain.
4. Ebazpen hau udal webgunean **ARGITARATZEA**

**Erabagi hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera emoten deutso. Dana dan, administrazioarekiko auzierrekurtsoa jar dagikezu, edota egoki deritoxozun beste edozein errekurtsu.**

**NON:** Dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegian.

**EPEA:** bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izan ezkeru, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeu errekurtsuau aurkez dagikezu ebazpena emon eban organoaren aurrean hilabetekuepean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

### PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Hauk dira bete beharreko betebeharrak:

1. Jarduera berrabiaraztea, hilabetekuepean, aipatutako alarma-estatuau amaitu dela adierazten denetik edo agintaritzau eskudunak etendakou jarduera berriru garatzekou baimena ematen duenetik, eta jarduera berrabiarazten denetik gutxienez sei hilabetez mantentzea.
2. Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitakou finantza-egiaztapenekou eta -kontrolerekou jardueren mende jartzea.



## GAMIZ-FIKAKO UDALA BIZKAIA

3. Laguntza lortzeagatik jasotako funtsak itzultzea, horretarako eskatutako baldintzak faltsu badira, edo hori eragotzi dutenak ezkutatu bada, edo diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketei aurre egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea.

4. Laguntza hauen onuradunek Udalarekin elkarlana egingo dute, eta dagozkion kontrol-eginkizunak betetzeko eskatzen diren ebidentzia guztiak eman.

5. Laguntza hauen onuradunek, diru-laguntzaren eskabidea aurkeztuta, berariazko baimena emango diote Gamiz-Fikako Udalari beste administrazio eta enpresa publiko batzuei informazioa eskatzeko edota emateko, diru-laguntza edozein fasetan egiaztatze eta kontrolatzeko lanak egin ditzaten.

6. Laguntza hauen onuradunek oinarri hauen atalean aipatutako dirulaguntzen araudi orokorrean araututako erantzukizunak, arau haustek eta zehapenak bete beharko dituzte.

### JARRAIPENA, IKUSKAPENA ETA KONTROLA

Udalak egokitzen jotzen dituen jarduerak egin ahal izango ditu oinarri hauetan jasotako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko.

Onuradunek eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute, hala badagokio.

Gamiz-Fikako Udalak eskubidea izango du onuradunak erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak berrikusi eta egiaztatze. Deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira, Gamiz-Fikako Udalak emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa eta haren legezko interesak itzultzeko eskatuko du.

Eskatzaileak ez badu aurkezten eskatutako dokumentazioa, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

### I. ERANSKINA

IZENA	NAN	KOPURUA
C.L.A	1-----15-	600
I.Z.M.	-0-5-1--	600
U.M.D.	7--9-0-	600
V.S.M	7-16----	600

### II.ERANSKINA

IZENA	DNI	EKARRI BEHARREKOA
T.S.L	-----	Gizarte segurantzaren eta ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria ERTEaren behin betiko onarpea %75eko fakturazioaren justifikazioa



Alkatea

Asier LARRABE URIARTE